

San Ferminak Martindegin ostiralean hasiko dira

■ Uztailaren 6an, ostirala, goizeko 10:00etan botako dute txupinazoa ■ Larunbat arratsaldean 'sega apustua' jokatu da.



Iazko Trikitilari lehiaketa Oialumeko plazan.

SAN JOAN jaietatik erreku-peratzeko ia denborarik gabe, badatoz San Ferminak, eta horiekin Martindegiko jaiak. Dagoeneko kalean da festen programa. Auzoko jai batzordeak, urtero bezala, ekitaldi ugari antolatu ditu aurtengorako ere.

OSTIRALEAN HASI

Ostiralean goizeko 10:00etan hasiko dira jaiak, txupinazoa bota eta kalejirarekin. Goizean, haurrak izango dira protagonista, beraientzat jolasak prestatu baitituzte.

Eguerdian 14:00etan auzoko gazte bazkaria egingo dute. Arratsaldean, berriz zinta karrera, karabina tiroa, tortilla patata lehiaketa eta sagardo probaketa. Eguna ondo bukatzeko, 23:30etan *Trakets*ekin dantzaldia izango da, goizalderarte.

SAN FERMIN EGUNA

Hau da jaietako egunik haundiena. Goizean goiz kalejira eta *Lo kuluxkarekin* hasiko da festa. 11:00etan auzoko hildakoen aldeko meza, Oialumen. Meza ostean, *Mobida* auzoko baserrietan barrena trikitixarekin. Baserriz baserri joango dira, emandakoak jan eta edanez.

Eguerdian 13:30etan Juan Mari Ormazabal *Turkori* omenaldia egingo zaio, eta auzoko preso eta errefuxiatuei lore eskaintza. 14:00etan auzoko ezkondu eta ezkongabeen arteko sokatira desafioa. Eta berriz indarrak hartzeko, herri bazkaria.

SEGA TXAPELKETA

Arratsaldean Gaztelu puzgarria Kukaña, zezentxoak eta zalditxoak izango dira. Aurtengoan bada nobedade bat: larunbate-

an, 19:30etan, herri mailako *Igo Kronika Sega Txapelketa* jokatu da. Bertan Hernaniko auzo arteko lehia izango da, tartean *Kronikako* ordezkariak dela. Martindegi, Osiñaga, Jaurerri, Portu eta *Kronikako* ordezkariak nor baino nor arituko dira segan.

Gauerditik aurrera *Laiotz*ekin dantzaldia. Atsedendian, gero eta famatuago egingo da. Goizaldera, *Platano Dantza* lehiaketa.

IGANDEAN BUKATU

Jaien azken egunean, Euskal Festa: 12:00etan hasita aizkolariak, harrijasotzaileak eta bertsolariak izango dira. Arratsaldean, 17:30etan *V. Trikitilari txapelketa*. *Toka txapelketa*, bertsolariak eta txingak. Ondoren, festak bukatzeko *Etzakit* taldea. □

Bihar, asteartea, odola emateko eguna

■ Arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara, anbulatorioan.



Aurreko hilabe batean odola ateratzen, anbulatorioan.

HILABETERO lehenengo asteartean Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak etortzen dira anbulatorioa, donazioa egin nahi duten hernaniarren odola jasotzera. Hilabete honetako lehen asteartea bihar tokatzen da, eta arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara anbulatorioan izango dira.

ERREKONAZIMENDUA

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak urtero errekonozimendu berezia egiten die donazio kopuru bat gainditzen dutenei: 25 aldiz odola eman dutetek zilarrezko ikurra jasoko dute, eta 50 donazio egin dituztenek, urrezkoa.

Hernanin badira saritutako kopuru horiek gainditu dituztenak. Datorren urrian emango zaizkie errekonozimendu ikurrak. Honako hauek dira 50 eta 25 aldiz odola eman duten hernaniarrak:

50 DONAZIO GAINDITUTAKOAK	
1	FRANCISCO GOYA ZUBELDIA
2	FCO. JAVIER ORMAETXEA ARRIRARAN
25 DONAZIO GAINDITUTAKOAK	
1	J. IGNACIO AIZPURUA OTAMENDI
2	M. JOSE ALZURI ALMANDOZ
3	JOSE ARCA GORDO
4	JOSE MIGUEL ARRARAS ASTIZ
5	M. JESUS AZKUE ORAEN
6	KRISTINA BARRNETXEA LASARTE
7	IGNACIO BELLOSILLO ETXEBERRIA
8	FRANCISCO GALLEGU PRADO
9	MANUEL GARAIAR OTEGI
10	M. ANTONIA GARAIAR SETIEN
11	JUAN MANUEL GARCIA PEREZ
12	MISABEL GARMENDIA ZAPIRAIN
13	PRIMITIVA GONZALEZ MARTIN
14	IGNACIO GURRUTXAGA LEKUONA
15	ESTEBAN HOLGADO SANTOS
16	M. PILAR JUAREZ GARCIA
17	MIKEL LEITZA REKONDO
18	JOSE LUIS MITXELENA ZARZOSA
19	M. JOSE MINGUEZ VELA
20	VICTOR MANUEL OCIO MADINA
21	G. OJANGUREN RUIZ DE LARRINAGA
22	MANUEL J. REKALDE AMONARRAZ
23	M. CARMEN SERENO CARRASO
24	MIGUEL SIMON UGET DE RESAYVE
25	ENEKO UGALDE ETXEZARRETA
26	VICTORIO ZABALETA GONZALEZ
27	JOSE ANTONIO ZUAZO IZAGIRRE

Asteazkenean bukatuko da Musika Eskolan aurrematrikula egiteko epea

■ Ekainaren 28a ezkerrez zabalik dago Udala Musika Eskolako aurrematrikula, eta asteazkenean itxiko da. Musika Eskolak 17 ikasgai eskaintzen ditu: bai musikari buruzko oinarri teorikoak eta baita soinu tresnak jotzen ere. Onartutakoan zerranda uztailaren 10ean jarriko dute Musika Eskolan bertan.

Gaur hasi eta hilabete osoa iraungo dute udaleku irekiak

■ 3-11 urte bitarteko 476 umek eman dute aurtengo izena. 55 begiralek, 3 koordinatzailek eta arduradun orokor batek bideratuko dute dena.

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

Bautista Biurrarena Etxegoien

Kardaberaz 40 -Behea
Tel. 943 33 24 40
Faxa 943 556602
Mobila 610 29 27 01
20120 HERNANI

GSE

LAN AHOLKULARITZA
FISKALA
KONTABLEA

GSE

Atzietza 51 Behea - 20.120 HERNANI
Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01

HIZKUNTZAK

Astarbe
INGELESA eta FRANTSESA

IKASTARO BERRIAK
MAILA GUZTIAK.
CAMBRIDGE- H.E.O.

Berri ematea eta izen ematea:
HELBIDE BERRIA
Montebideo kalea 1, 1^{gora} A
(EPO ikastetxe ondoan)
Tel: 943 551 201
617 237 387
20120 HERNANI

■ PELOTA - HERRI ARTEKOA

Hernanik ezin izan zion buelta eman Soraluzeke emaitzari finalerdietan

■ Atzo ere Soraluze nagusitu zen 2-1eko emaitzarekin ■ Afizionatuetako partidua irabazi zuen Hernanik ■ Kanporaketako azken emaitza: Soraluze 4 - Hernani 2.



Garikoitz Erroizena eta Felix Zabala beroketan. Beraiek lortu zuten atzo Hernaniren garaipena.

HERNANIK agur esan zion atzo aurtengo Herri Arteko Txapelketari. Soraluzen joaneko izandako emaitzari buelta ematea zaila zen, baina, esperantza txikiren bat bazen. Azkenean ezin eta atzo ere Soraluzeke emaitza errepikatu zen 2-1 hernaniarren aurka.

KADETEEK EZIN

Kadeteetan zegoen alderik haundiena, eta atzo ere argi

ikusitu zen. Partidua parekatu hasi bazen ere berehala Soraluzekeok diferentzia markatu zuten eta 22-8 nagusitu ziren.

JUBENILEK GALDU

Jubenilek joaneko partidua irabaztea lortu zuten, baina, atzo Zabala eta Iuberok ezin izan zuten emaitza errepikatu. Partidu gogorra izan zen, eta azkenean, Soraluzetarren atzelariaren kolpeak hernaniarrak

mendean hartu zituen 22-18.

AFIZIONATUEK IRABAZI

Afizionatuek lortu zuten atzo hernaniarren garaipen bakarra. Joanekoan ere gauzak estu jarri zizkioten Soraluzetarrei eta atzo Erroizena eta Zabalak 22-18 irabaztea lortu zuten. Aurtengoan finalik izango ez bada ere aipagarria da Hernaniarren 4garren urtea zutela jarraian finalerdietan. □

XALAPARTA ELKARTEA

Julio Gonzalez eta Jesus Altzelai aurten Xalapartako mus txapeldunak

■ Urteurren afarian Fermin Cuesta 'Hernaniar Bikain' izendatu zuen elkarteak.



M. Urdangarin (Xalapartako lehendakaria) Gonzalez-Altzelai (museko txapeldunak) eta Juanito Goikoetxea (Sariak jarri dituena). (Arg. Biyok)

XALAPARTA elkarteke mus txapelketak baditu irabazleak: Julio Gonzalez eta Jesus Altzelai. Txapelketako sari-banaketa elkarteke urteurren afarian egin zen. Miguel Urdangarin Xalapartako lehendakariak Kronikari esan dionez, oso giro ederrean. Txapelketako sariak Juanito Goikoetxea Alzuetak jarri ditu.

FERMIN CUESTARI OMENALDIA

Xalapartak, bi urtez behin, *Hernaniar Bikaina* saria ematen du. Aurten Fermin Cuesta kirolari eta kirolzale ezagunari eman dio, bere kirol ibilbide luzearen ordainetan: Hernaniko futbol jokalaria urteetan, eskubaloian, pelotan eta krossean ere ibilia. Gainera, CDHko lehendakari eta zuzendaritzako partaide ere urte askoan. □



Miguel Urdangarin Fermin Cuestari saria ematen, ondoan emazteadutela. (Arg. Biyok)

Pirineoetara irteera eta eskalatzeko ikastaroa, Mendiriz Mendik antolatuta

■ Mendi irteera: Pineta-Tucarroya-Piméné-Gavarnie-Bujaruelo, datorren asteburuan.



Eskalatzeko ikasi nahi duenak uztailean du aukera.

MENDIRIZ Mendik uztailean betea du. Datorren asteburuan Pirineoetan trabesia egingo du, mugaz alde batetik abiatu eta bestean bukatu, bidean paraje ederrak ikusita. Trabiak gailurrik altuena Piméné izango da, 2.801 m.

Mendi ibilaldi hau uztailearen 7 eta 8an egingo da. Prezioari dagokionez, bazkideek 8.500 pta ordaindu behar dute eta gainerakoek 9.500. Izena ematerakoan 5.000 aurreratu behar da. Apuntatzeko azken eguna uztailearen 5a da, osteguna.

Xehetasun gehiago jakin nahi dituenak Mendiriz Mendiko lokalera jo, gaur edo ostegunean. ☎ 943-332745.

ESKALATZEKO IKASTAROA

Mendiriz Mendik uztailean antolatzen du eskalatzeko ikas-

teko asteburu bateko ikastaroa. Aurten, uztailearen 14 eta 15ean egingo da.

Hasierako plana egun bat Santa Barbaran eta bestea Txindokin egitea da. Baina uztailearen 12an, osteguna, izena eman dutenekin bilera egingo da puntu horiek lotzeko. Bilera mendi elkarteke lokalean bertan egingo da arratsaldeko 20:00etan.

ALPEETARA

Uztaila ondo bukatzeko, 27tik 31ra, Alpeetara joateko espedizioa antolatu du Mendiriz Mendik. Hasteko, 3.000 metroko mendia igoko dute gorputza ohitzeko, eta gero, *Breithon*, 4.159 metrokoa. *Via Ferratetan* (harkaitzean egindako bideak) ere ibiliko dira, bost eguneko ibilaldi horretan. Izena emateko epea aspaldi itxi zen. □

HERIOTZAK

Francisco Benitez Tamayo
Ostegunean hil zen 30 urte zituela
Ramona Parras Gonzalez
Ostiralean hil zen 77 urte zituela

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak:
943 550093
☎ Udaltzaingoa:
943 333288
☎ DYA:
943 464622
☎ Anbulatorioa:
943 557750
☎ Jokalari anonimoak
943 331103

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Bulnes
Etxeberri - Florida
☎ 943 557738
☎ Gauzez: Vidaur
Lasarte. Jaizkibel plaza 2
☎ 943 362652

☎ ASTEARTEA

☎ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793

☎ Gauzez: Gil
Lasarte. Nagusia 24
☎ 943 361529

☎ ASTEAZKENA

☎ Egunez: Aizpuru
Latxunbe berri 11
☎ 943 553582

☎ Gauzez: Iturralde
Usurbil. 13 poligonoa 9
☎ 943 363395